ALKARGUNTZA GARAIA

Zerbait egin nai duten guzlak, gure egunotan, alkartuaz ekin ol diote beren lanari. Bakarra mundu onetan, soillegi gelditzen da ezer garrantzidunik, ezer sustraitsurik egiteko.

Elkarteak nekazarientzako. Elkarteak industri langileentzako. Elkarteak Ikastoletarako. Elkarteak kiroletarako. Ori da gaurko giroan ikusten deguna. Ta alkartasun alde onetan, bai sal-erost ko, bai gure lanari indar aundiagoa txertatzeko, bai gure asmoak aurrera eramateko, aukera guzlak ugaldu egiten zaizkigu gure inguruan.

Oraintxe, ain zuzen Errenderi'n degu onelako ikasbide bat.

Ba-zan erri onetan Alkarguntza edo Kooperatiba bat, "Santa Maria Magdalena"ren izenpean. Gizarteasmoak ziruzten bertan, salgaiak eta janariak denentzat batera erosi ta onela laguntzen zien bertako lagunei, bizimodua merkatzen. Baiña beren asmoak ortik gorakoak ziran, eta orain langille alkartu olei beste aukera batzuek eskeiñi nai izan dizkiete Alkartasun-Etxe orretan.

Denda merkeagoa bakarrik eskeintzea gutxitzo iristen zitzaien, eta orain Etxe orretan, Jakintza ta Irakaskintza Sailla piztu dituzte, alkartuei beste mesede batzuek egiteko.

Ba-dute beren "Erri Aurrerapen Kaja", diru-prestaketak eskeintzeko; ba-dute ere "Erri Onegintza" izeneko sailla, etxe-biziltzak lasotzeko Orain Jakintza ta Kirol bideak urratu nai dituzte Elkarteko lagunen artean.

Orra bidea beste lanetan ere guk artzekoa. Beti ere, emen gabiltza euskal-ekintzan diru-laguntza gitxi degula esaten. Euskal liburuak salmenta txikia dutela; euskal antzerkiak irabazi txikia sortzen dutela; euskal jaietan laguntasun urria arkitzen degula esaten.

Negar oiek ixiltzeko, ALKARGUNTZA bear-bearrekoa degu euskaldunok. Bakoitza bere bidetik, besteengandik etenda, emen gabiltz esamesetan, —ik, onek, arek—, gure eziñaren sendabidea asmatu eziñik. Zer ederragorik, gure Euskal Ikastoletarako, Alkarguntza bidez jotzea baiño? Zer eragingarriagorik gure Antzerti, gure liburu ta beste Euskal lanetarako Alkartuta lan egitea baiño?

Besterik genduke orduan, gure Ekintza. Sortu ditzagun, beraz, ALKARGUNTZA edo KOOPERATIBA kateak, auen bidez gure Euskal-Giroa indartzeko; gaur ezin iritzi ditugun jomugak gaintzeko.

Gure Ikastolak, gure Irakasleak, gure Erdi Irakaskintza, gure Unibersidadea, zai dauzkagu. Ikastetxetarako liburu jatorren premi gorrian gaude. Zimendutik gure etxea jasotzeko, bide oberik eta azkarragorik ezin arki dezakegu.

Gezurra dirudi, euskaldunok industri ta dirua inguratzeko onen mutiliak izanik; Kultura gauzetarako onen motelak izan bear genduanik.

Beste erri ta izkuntzei izena ta indarra ematen ikasi degu, ta gere etxeko jakintza-eragiña pizkortzeko ezkera gauza izan.

Erri aberatsa, aukera guztetan bizi dana degu Euskalerria. Bilbo da Españia barruan Diru Erria. Ta Gipuzkoa ta Bizkaia, onelako aurrerapenetan sailduak dauzkagu. Zertarako degu aurrerapen au, makiña batzuekin bizibidea sortzeko, gauzarik ederrenean, jakintza bidetan, gure espirituaren esna-aldia pizten onen atzeratuak gelditzen ba-gera?

Ordua da, ba, gure bideak aldatzeko; laster-biderik onena artzeko gure eiñean. EUSKAL ARNASA sail onetan azaldu bear degu.

Berriz ere bilinguismoari buruz

Gai oni buruz ez gera ari lenbizi-ko aldiz, ez eta ere ez gera jardungo azkenengo aldiz. Bada zer esana.

Alde guztetan ari dira erri txikien izate eta izkuntzen alde. Frantzia bera ere orren zentralista izan delarik, zerbait mugitu da bere barnean dituan izkuntzen alde. Aspaldikoa degu Deixonne dalako lege ura («Journal Officiel», 13--1-1951, 51-46 zenbakia) bere frutuak gure gogoa asetu ez badute ere. Ta, orain, oraintxu «Herria» asterokoak ekarrenez (N.º 844, buruilaren 6'koa, bigarren plana, 1966) Bordeleko Uniberzidadeak artu omen du eragabagia gain-gaiñeko erakaspenetan lehen zatian bi mintzaira bizi ikasi bearra, bi irakas-aldietan (Sections «Lettres Modernes» eta «Langues vivantes»), ikaslek bigarren mintzairatzat autatu aalgo dute beste askoren artean katalana edo euskera, lizenzia ofizial bati buruz. Lenengo aldiz ematen dute Unibersidade batean euskaldunentzako aukera au. Eskergarria da benetan ortarako Jean Haritschelhar jaunak eta bere inguruko beste zenbait euskeltzalek egin duten lana.

Alde onetan ere gauzak ez daude geldi. Euskaltzaindiak Gobernuko agintarieri euskera eskoletan sartzeko eskaria egin bear zuala ta egunkariak berari buruz asi ziranetik naikoa zer esan zabaldu da bazterretan. Era guzietako irtiziak zabaldu dira.

Askorentzat, badirudi beste munduko gauza bat eskatu dala edo. Ezin emaneko gauza bat balitz bezela. Baiña uste det ez dala eskatu eziñezkorik, eta ez geiegizkorik: euskerari, naiz katalanari edo naiz gallegoari, munduko edozein izkuntzak duan eskubidea; ez geiagorik eta ez gutxiagorik. Deretzo ori eskatu bearrik ez gendun izango gure esku izan bagendu. Gure esku eukitzea, esan nai det, gizalegezko demokrazi baten barnean izatea balitz; guk gure prolemak erabagi bearra. Baiña, guk zer bear degun besteeri eskatu bear zaionean, ortik sortzen dira oztopoak, gauzak bere bidean aurrera eramateko. Bada au ere. Nere etxeak zelan bear duan auzokoak esan bear. Orrela izan ez balitz, ez gendun izango eskatu bearrik, Diputazioan edo geure artean erabagi ta kitto. Baiña...

Gai oni buruz irizpide ederrak argitaratu ditu «Destino» aldizkariak. Iñoiz eman det beren berri. Gure egoeratik begiraturik, oso pozik irakurtzen ditut gauza txit jakingarri oiek. Ain zuzen ere, Berna'tik Suiza bertako seme batek idatzitako lantxo bat ekarren urrillaren 22'ko zenbakiat, *Las cuatro lenguas españolas*. Rast dalako bernatarrak izenpetua. Rast'ek, espaiñolez dakianez eta «Destino»ren irakurlea danez, esaten du, ikusirik bilinguismoari buruz irakurri dituan aburuak, politikazko eragozpenak izan ez dedin, obe litzakeala lenbait-len Espaiñiako lau izkuntzak, beren tokietan, ofizialki jartzea, an bertan Suizan bezela. Erderaz jasoko det, itzez-itz, bere ataltxo bat:

«Como soy suizo, tengo suma comprensión por su problema de las cuatro lenguas que se hablan en su país tan apreciado.

«Se hablan en Suiza cuatro idiomas: en un país que sólo cuenta cinco millones de habitantes, que viven en una superficie de sólo 40.000 kilómetros cuadrados, lo que quiere decir que no constituye más que la décima parte de España. El alemán lo hablan un 70 por 100; el francés, un 20 por 100; el italiano, un 8 por 100; el rético, un 2 por 100.

«Esta diferencia de idiomas no causa ningún problema político; no conocemos conflictos lingüísticos. Al contrario: el suizo de la parte alemana aprenderá el idioma de sus compatriotas franceses e italianos, y viceversa. Somos orgullosos de esta variedad de lenguas, de la cual procede un manantial fecundante en cuanto a la cultura, el progreso y el incremento espiritual».

Ez da gaizki. Ori da gizon jokatzea. Gaiñerako gauzetan ere Suiza orrela jokatzen bada, bere lur urritasun guztian ere, Suiza, erri aundi bat izango da.

Baiña ara bestaldetik beste iritzi bat, ta guk auekin tratatu bearra degunez, ta ez suizarrekin, beste onen bestelako aburua ere dagon bezela jarriko det. Il onen 5'eko «Hierro»k, lenengo orrialdean ekarrenez, Madrilgo «Arriba» egunkarian idatzi omen du Cristobal Páez'ek: «Creo que la empresa es hermosa (Euskalerriko eskoletan euskera jartzeari buruz ari da) y sugestiva y que la vieja lengua de los éuscaros fuerte, ingenua y casta, florecerá en los labios de los niños vascos. Cuando, no hace mucho, tuve ocasión de estar un par de días recorriendo caseríos guipuzcoanos, pude darme cuenta de que la mayoría de los jóvenes no conocían la lengua ancestral. El vascuence lo hablan, por supuesto, todas las personas de cierta edad que viven en el campo. En las ciudades del País Vasco ya se oye menos frecuente esta parla. En las zonas rurales es frecuente el caso de hombres y mujeres metidos en años que no saben ni media docena de palabras en castellano. Cuando se saca a colación el tema del vascuence hay que llevar bastante cuidado para no patinar. El asunto está tan politizado que quizá sería una empresa benemérita el limpiarlo de tanto polvo y tanta paja como unos y otros han echado sobre el mismo. La cerrazón mental de los que históricamente han asumido la defensa y el ataque desde un plano estrictamente político han enredado el negocio de tal manera que mucho me temo que aún permanezca sumido en un mar de confusiones...».

Ederki gaude euskera utzita orrelako erdera ikasi bear badegu. Orrelako ikasbideetatik, «parlantes»en ordez «parlanchin» izateko bidetan gaude. Len ere berritxuekin aspertuta gaude. Rest'ek eta Páez'ek, letretan neurri berdiña badute ere, iritzietan amiltegi aundiak banantzen ditu.

Euskeltzaleok asko sentitzen degu gure izkuntzarekin orren nastua ibiltzea politika. Naiago genuke politika gabeko biziera edo politika guzien laguntza. Politika ez al da bizitza galeraziz itto nai gaituana? Politika ez alda norpere izkuntzaren alde eskubiderik eza? Euskaldun asko beartu gera euskera salbatzeko politikara jotera. Nik zer naiago orrek guziok utzita euskera salbatzea baiño. Ta kasik «seguru nago euskerari laguntza ofiziala ematen zaion egunean gure politika biguntuko dala, alde orretatik beintzat, ta Espaiñiako errien artean artu-eman obeak eta zintzoagoak izango ditugula. Ori nai genduke. Ta ez da izango oso gaitza politika ona egiten bada; Suiza'ra begiratu besterik ez degu.

Páez jaunak, bi egun urrietan, agiri danez, asko ikusi zuen Gipuzkoako errita baserrietan. Lastima ni berarekin alkartu bear ez, bestela, eramango nuen gure probintziaren lau aldeetatik Matxinbenta, Ataun'go Aya, Aingeruzar, Lastur, Alkiza, Albiztur, Ernialde eta abar erakustera, ta ez euskeraz egiten dan ala ez, —ori gorrak ere badaki— baizik aurren irakaskintzari buruz zer nolako prolemak dauden erakustera, euskerazo eskolarik ez dutelako.

Gaiñera, berak dion bezela aurrak euskerarik ez badakite eta nagusiak erderarik ez, alkarren artean latinez ulertzen ote dira?

Agiri danez, zenbaitentzat mingarria da Espaiñia monolinguista ori egin eziña. Ta, bestaldetik, justutasuna nai dute, an urrutian, Filipinas'tan gaztelera galtzen dijoala ta UNESCO'ari arako laguntza eskatuz. Orrela gera, kanpo larrosa ta etxe kardo.

JUAN SAN MARTIN

Erderara saltua, gaur, materialismoaren ezaugarri

Julen Calzada

Anderaño batek agertu eustan lengo baten, euskera ikasteko eukan gogua. Iñoanez amorratzen egoan. Baña..., azkenean, asteko, be, aitzakiak. Baekian euskeraz, baña landu ta bizitzaratu barik eukan.

Neurtzeko zelakoa zan, berak iñoan gogo bizi ori, esan neutzan: Urte bian euskeraz ikasi eskero, Dauphine bat, nonor zeuri emotekotan bakego, ikasiko zeunke? Bai, erantzun eustan barru-barrutik.

Aur ba; euskera, bere gurasoak daukezan espiritu ondasunak artzeko tresna egokiena, egiz euskal kulturaren oñarri ta agerkizuna, dauphine bat baño gitxiago maite eban; bada, dauphine bategaitik ikasiko leukenak, aaztu be (aldu be) egingo leuke gauz bardiñagaitik eta.

Au, gure errian gauz bakan bat danik ezin geinke esan, millaka dira anderaño onelangoak eta: Euren izkuntza, be (1), ikasi ta landu bearrean, erdaldunena bakarrik ikasi ta landuten dabenak. Balio au baztertu dabenak eta euren semealabai irakasten ez dautsenak; Erri asko Euskalerrian, euskera galdu ebenak eta orain euren seme-alabai ezin dautsenak irakatsi ta ondoren lez, euskaltasuna be ezin dautsenak emon.

Euskalerria ta euskalduna, gauz askon bidez, eldu da egoera ontara; baña, barren-barrenean, DIRUKERIA da errudun. Materialismoak lortu dau euskera JAKINKERI bat biurtzea, ta erdera gure bizitzako ardatza egitea.

Dirukeri giroak gure izkuntza bere ardatzetik atara ta benetako oñarriak kendu egin dautsoz.

Zergatik au? Erri baten nortasuna, soziologuak diñoenez, euneko laurogei baño geyago izkuntzan iñarritzen da. Izkuntza da, batez be, erri bateri bere ispiritua (izakera berezia) emoten dautsana. Izkuntzaren ardatza da: "Ispiritu artu-emonetarako, batez be, egiña dala". Erriaren ispiritua ta beragan moldatuta dagon kultura emoteko; persona batzuekandik besteakana eroateko. Izan, ezta izkuntza bakarrik erri bateri ispiritua emoten dautsona; beste era batzuk be badagoz: baña tresna orreik, guztiak bat egin-da, ispirituaren euneko ogei be eztabe emoten, soziologuak diñoe euneko laurogei baño geyago izkuntzak emoten dabela ta.

Iz kuntz asko ta beste tresna orreik egotea gizartearentzat gauz ona da, izkuntz eta tresna ezbardiñetan moldatzan dira balio bereziak eta.

Ta kultura oso bat egiteko tresna danak aportatzen daben lez zeozer, izkuntz eta beste tresnak, asko egoteak, mesede aundia egiten dautso gizarteari; Mosaiko bat egiten dabe danan artean.

Euskaldunok, ba, geure euskal ispirituaren oñarria euskeran daukagu. Euskera da euskal arima artzeko ta ondorengoai emoteko daukagun tresna. Erdal izkuntzabuz euskal arima zail emon leike, euskera bakarrik dalako euskal arima egoki artu ta emoten daben tresna.

Euskal ispiritua ez galtzeko ta aberastuteko, ba, bearrezko yaku euskera; erdal ispiritua ez galtzeko erdera bearrezko dan lez.

Baña ispiritu arloak baztertua, dirua lortu gurean dabillena, materialismo giroan sartu da, diruaren morroi da ta zein dan diru geyen atarateko erarik onena ikusten bakarrik alegintzen da. Gauza guztiakin bardin egiten dau. Zer da beretzat dirua atarateko onena? Fundiziñoa ipinitea ala telebisiñoak dirua atarateko onena? Fundiziñoa ipinitea ala telebisiñoak egitea? Lege gizon izatea ala peritu?

Izkuntzari buruz, be, bardiñ. Zein da onena gaur dirua egiteko? Erdera jakitea ala euskera jakitea?

Eta dirua atarateko, berez, izkuntz danak bardiñ izan arren, gaur erderak euskerak baño geyago balio daben lez, emonkorragoa ("más rentable") dan lez, materialismo giroan sartuta dagonak erderara joten dau. Egiz, diruari begira, guretzat erderak geyago balio dau gaur; baña euskal arimari ta gizarte osoko kulturari begira, guretzat euskerak asko geyago balio dau, diruz gañetziko munduaren (bigarren munduaren) ezaugarri dalako.

Len esandako millaka euskaldun dirukeri-giro onek menperatuta aurkitzen dira. Bestela euskera geyago erabili ta lauduko geunke, erdera alde batera itxi barik; edo galduta daukenak barriro lortzen aleginduko litzakez.

Gurasokandik artutako pitxi au bizitza osoan erabilli daigun, al dogun beste aberastuta, gizarteari aportaziño aundi bat egiteko, kultura arloan; eta geu benetako euskaldunak izateko.

---

(1) OARRA.—IZKUNTZA, itz au aitzen dogu ez orrenbeste «ondo jakitea»; bizitzako arlo ta gai guztietan «erabiltea» baño. Euskera ondo jakingo bageunke, baña beti erdera erabilli, ezingo geunke euskal arima iñoiz artu. Baña, ain ondo jakin ez arren, barriz, beti erabilliko bageunke, orduan euskal arima osotuten doia gure barruan. Augaitik diñogu asikeran: «erderara saltua», au da: erdera erabiltera saltua euskera bastertuta.

ZENBAT BURU, AINBAT ABURU

Idazki au artua degu:

«ZERUKO ARGIA»'KO ZUZENDARIARI

Agur, jauna:

Aspaldik irakurtzen det Zeruko Argia. Eskuetan daramazuten lana, euskerarentzako onuragarri deritzait. Esatera nijoakizuen au, zerbait borobildu diteke Errex bete diteken utsuna da: erdal aldizkari batzuetan bezela, irakurleak esatekoak adieraztearren, ez dutela or txokorik. Asmo au ontzat artuz, irakurleak beren usteak azaldu ditzaten, ez al dezakezute lerro batzuetako tokirik arkituko? Ba-liteke orrela irakurleak pixkanaka idazle-lasle biurtzea. Eskutititz era gelenok erabilli oi bai-degu ta gogoz salatuko ba-giña, bilduko giñake talderen bat. Ia, bada denon artean ugaritzen ditugun irakurleak, ez-ezik, idazleak ere.

Al ba-dezute, nere naiarl abegi ona emango diozutela, ziur naiz. Onela gertatu arte, nere esker onak.

USTOA'tar JOSEBA

IDAZLE-SAILLAREN ERANTZUNA:

Gure asmoa, garbi-garbia da ontan. Gure irakurleak ZERUKO ARGIA'n idazten ikusi nai genituzke. Idaz-lan luze ta osorik sartzeko ez genduke lekurik izango. Orregatik, gure irakurleak idatzi dezaigutela motz eta *zorrotz*.

Naikoa litzake ortarako «kuartilla» baten luzerako idaz-lantxoa. Ta lerroak tartea bitartean utziaz izan ditezela.

Orrez gain, idazten digutenak, beren lanak izenpetu ditzatela, ta beren bizilekua ongi ta garbi jarri dezatela. Onela adiskide alkarizketa sortuko degu euskeraren alde.

Zuena da, beraz, erantzuna. idazleok, esnatu ta bakoitzak bere tantoa jarri dezala, alegin onetan.